# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia | Iruña, 2017ko martxoaren 29a | 51. ZK.

**A U R K I B I D E A**

F SAILA:
**Galderak:**
—Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan D ereduko unitateetan izandako altei eta bajei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
—Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I, Iruñeko Ermitagaña eta San Juan de la Cadena ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
—Galdera, Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Galdera, Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía María ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
—Galdera, ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak ikasturtea hasita dagoelarik hasteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kostu osoaren finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa finantzatze aldera Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmenean jasotako txostena egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, "Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak" kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tuterarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tafallarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Lizarrarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, Josefina Arregui zentroa dela-eta onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—Galdera, "Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2" proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Galdera, Zangozako bidezain-etxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Galdera, jakitekoa zer egoeratan dauden Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak, balizko uholdeek ahalik eta kalterik txikiena egitea bermatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Galdera, Iruña-Noaingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izatera bideratutako negoziazioak zertan diren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Galdera, banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzul ditzaten Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 17an egin zen VI. Lehendakari Konferentzia dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan D ereduko unitateetan izandako altei eta bajei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan D ereduko unitateetan izandako altei eta bajei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (9-17/PES-00001). Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Ez da ez altarik ez bajarik gertatu ikasturte hasierako matrikularekin alderatuta.

| Ikastetxea | Ikasmaila | Hasiera data | Bukera data | Ikasleak |
|---|---|---|---|---|
| Caparroso V. Soto HLHIPa | 3 A | 16-09-01 | | 5 |
| Lodosako A. Mnez. HLHIPa Baigorri | 3 A | 16-09-01 | | 6 |
| Tafallako Marqués Real Defensa HLHIPa | 3 A | 16-09-01 | | 5 |

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (9-17/PES-00002). Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaur den egunean, Hezkuntza Departamentuaren 2017/2018 ikasturterako aurreikuspena da Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailan (3 urte) honako talde hauek egotea Caparroso, Lodosa eta Tafallako ikastetxe publikoetan:

| | 2017/2018 | |
|---|---|---|
| Ikastetxea | Aurreikusitako taldeak | |
| | A/G eredua | D eredua |
| Caparroso V. Soto HLHIP | 2 | 0* |
| Lodosako A. Mnez. HLHIPa Baigorri | 1 | 1 |
| Tafallako Marqués Real Defensa HLHIPa | 2 | 0* |
| | | |

(*) Oharra: D ereduko 3 urteko ikasleak 4 urteko ikasleen talde berean egonen lirateke, 4 urtekoetan kontabilizatu baita taldea.

Aurreikuspena oinarrituta dago 2017/18 ikasturtean eskola-sisteman sartuko diren 3 urteko ikasleei dagozkien jaiotzetan eta ikastetxe bakoitzaren Educa aplikazioko artxibo historikotik ateratako kalkulu matematikoan. Ohikoa den bezala, eta halaxe izan da aurreko ikasturteetan, aurreikusitakoaren aldean aldaketak egonen dira, familiek egindako hautuen eta populazio-mugimenduen ondorioz.

Aurreikuspen horretan ez dira kontuan hartu erreferentziako ikastetxeetako D ereduko balizko taldeak, gaur egun halako eskaintzarik ez baitago.

Ikastetxe bakarra duten herrietan, aurre-matrikulazioek aurreikuspen horien aldean gora egiten badute eta horrek talde gehiago egotea eragiten badu, doikuntza automatikoki eginen da eta beste talde bat sortuko da.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an.

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I, Iruñeko Ermitagaña eta San Juan de la Cadena ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I, Iruñeko Ermitagaña eta San Juan de la Cadena ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (9-17/PES-00003). Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaur den egunean, Hezkuntza Departamentuaren 2017/2018 ikasturterako aurreikuspena da Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailan (3 urte) honako talde hauek egotea Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I eta Iruñeko Ermitagañako eta San Juan de la Cadenako ikastetxe publikoetan:

| Ikastetxea | 2017/2018 Aurreikusitako taldeak | |
|---|---|---|
| | AG eredua | D eredua |
| Lizarra Remontival HLHIPa | 3 | 2 |
| Berriozarko Mendialdea I HLHIPa | 3 | |
| Iruñeko HLHIPa Ermitagaña | 1 | |
| Iruñeko HLHIPa S. J. Cadena | 2 | |

Aurreikuspena oinarrituta dago 2017/18 ikasturtean eskola-sisteman sartuko diren 3 urteko ikasleei dagozkien jaiotzetan eta ikastetxe bakoitzaren Educa aplikazioko artxibo historikotik ateratako kalkulu matematikoan. Ohikoa den bezala, eta halaxe izan da aurreko ikasturteetan, aurreikusitakoaren aldean aldaketak egonen dira, familiek egindako hautuen eta populazio-mugimenduen ondorioz.

Aurreikuspen horretan ez dira kontuan hartu erreferentziako ikastetxeetako D ereduko balizko taldeak, gaur egun halako eskaintzarik ez baitago.

Ikastetxe bakarra duten herrietan, aurre-matrikulazioek aurreikuspen horien aldean gora egiten badute eta horrek talde gehiago egotea eragiten badu, doikuntza automatikoki eginen da eta beste talde bat sortuko da.

Iruñean, 2017ko otsailaren 2an.

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00004). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean, Hezkuntza Departamentuak aurreikusita dauka 2017-2018 ikasturterako bi lerro ezartzea, Tuterako ikastetxe publikoetako zuzendaritzekin adostutako plangintzaren arabera.

Hezkuntza Departamentuak aurreikusi du 2017. urtean Huertas Mayores ikastetxe publikoa zabaltzea. 2017-2018 ikasturtearen hasieran egonen da zabalpen hori funtzionamenduan. Beheko solairua gehi beste bi solairu izanen duen zabalpen horrek ikastetxeak dauzkan espazio-arazoak konponduko ditu datozen urteetarako; honako hauek eginen dira: 11 ikasgela berri, liburutegi bat eta komunak, bai eta gehigarri batzuk ere.

Aurreikusita dago obrak 2017ko martxoan hastea eta abuztuan amaitzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (9-17/PES-00005). Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaur den egunean, Hezkuntza Departamentuaren 2017/2018 ikasturterako aurreikuspena da Haur Hezkuntzako lehen mailan (3 urte) honako talde hauek egotea Tuterako Monte San Julián ikastetxean:

| Ikastetxea | 2017/2018 Aurreikusitako taldeak |
|---|---|
| Tuterako HLHIPa Monte San Julián | 2 |

Aurreikuspena oinarrituta dago 2017/18 ikasturtean eskola-sisteman sartuko diren 3 urteko ikasleei dagozkien jaiotzetan eta ikastetxe bakoitzaren Educa aplikazioko artxibo historikotik ateratako kalkulu matematikoan. Ohikoa den bezala, eta halaxe izan da aurreko ikasturteetan, aurreikusitakoaren aldean aldaketak egonen dira, familiek egindako hautuen eta populazio-mugimenduen ondorioz.

Aurreikuspen horretan ez dira kontuan hartu erreferentziako ikastetxeetako D ereduko balizko taldeak, gaur egun halako eskaintzarik ez baitago.

Ikastetxe bakarra duten herrietan, aurre-matrikulazioek aurreikuspen horien aldean gora egiten badute eta horrek talde gehiago egotea eragiten badu, doikuntza automatikoki eginen da eta beste talde bat sortuko da.

Tuterako ikastetxeei dagokienez, aurreikusi da eskolatze-prozesuari tratamendu berezia ematea; horrek, izan ere, berekin ekarriko du ikastetxe bakoitzeko taldeen kopurua irailera arte ez ixtea, hartara modu ekitatiboagoan eta ordenatuagoan antolatu ahal izateko 2017/18 ikasturterako aurreikusi ditugun eskolatze berriak, betiere aurreko ikasturteetako zenbatekoak kontuan hartuta. Erabaki hori aho batez hartu zen ukitutako ikastetxeetako zuzendaritzekin, bai eta eskolatze batzordeko lehendakariarekin eta hiriko alkatearekin ere, ikastetxeek beraiek egindako proposamenean oinarrituta.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an.

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## Galdera, Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía María ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía María ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (9-17/PES-00006). Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Gaur den egunean, Hezkuntza Departamentuaren 2017/2018 ikasturterako aurreikuspena da Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailan (3 urte) honako talde hauek egotea Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía de María ikastetxeetan:

| | 2017/2018 |
|---|---|
| **Ikastetxea** | **Aurreikusitako taldeak** |
| Tuterako HLHIPa Elvira España | 3 |
| Tuterako HLHIPa Griseras | 2 |
| Ikastetxe itundua Tutera Anunciata | 3 |
| Ikastetxe itundua Tutera Cia de María | 4 |

Aurreikuspena oinarrituta dago 2017/18 ikasturtean eskola-sisteman sartuko diren 3 urteko ikasleei dagozkien jaiotzetan eta ikastetxe bakoitzaren Educa aplikazioko artxibo historikotik ateratako kalkulu matematikoan. Ohikoa den bezala, eta halaxe izan da aurreko ikasturteetan, aurreikusitakoaren aldean aldaketak egonen dira, familiek egindako hautuen eta populazio-mugimenduen ondorioz.

Aurreikuspen horretan ez dira kontuan hartu erreferentziako ikastetxeetako D ereduko balizko taldeak, gaur egun halako eskaintzarik ez baitago.

Ikastetxe bakarra duten herrietan, aurre-matrikulazioek aurreikuspen horien aldean gora egiten badute eta horrek talde gehiago egotea eragiten badu, doikuntza automatikoki eginen da eta beste talde bat sortuko da.

Tuterako ikastetxeei dagokienez, aurreikusi da eskolatze-prozesuari tratamendu berezia ematea; horrek, izan ere, berekin ekarriko du ikastetxe bakoitzeko taldeen kopurua irailera arte ez ixtea, hartara modu ekitatiboagoan eta ordenatuagoan antolatu ahal izateko 2017/18 ikasturterako aurreikusi ditugun eskolatze berriak, betiere aurreko ikasturteetako zenbatekoak kontuan hartuta. Erabaki hori aho batez hartu zen ukitutako ikastetxeetako zuzendaritzekin, bai eta eskolatze batzordeko lehendakariarekin eta hiriko alkatearekin ere, ikastetxeek beraiek egindako proposamenean oinarrituta.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## Galdera, ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak ikasturtea hasita dagoelarik hasteari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak ikasturtea hasita dagoelarik hasteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (9-17/PES-00007). Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Informazio hori gehitu dugun eranskinean ageri da.

Tuterako ikastetxeei dagokienez, aurreikusi da eskolatze-prozesuari tratamendu berezia ematea; horrek, izan ere, berekin ekarriko du ikastetxe bakoitzeko taldeen kopurua irailera arte ez ixtea, hartara modu ekitatiboagoan eta ordenatuagoan antolatu ahal izateko 2017/18 ikasturterako aurreikusi ditugun eskolatze berriak, betiere aurreko ikasturteetako zenbatekoak kontuan hartuta. Erabaki hori aho batez hartu zen ukitutako ikastetxeetako zuzendaritzekin, bai eta eskolatze batzordeko lehendakariarekin eta hiriko alkatearekin ere, ikastetxeek beraiek egindako proposamenean oinarrituta.

2017/2018 ikasturteetan Nafarroako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailan (3 urte) egonen diren ikasleen taldeei eta ikasle kopuruari buruz Hezkuntza Departamentuak egindako aurreikuspena oinarrituta dago 2017/18 ikasturtean eskola-sisteman sartuko diren 3 urteko ikasleei dagozkien jaiotzetan eta ikastetxe bakoitzaren Educa aplikazioko artxibo historikotik ateratako kalkulu matematikoan. Ohikoa den bezala, eta halaxe izan da aurreko ikasturteetan, aurreikusitakoaren aldean aldaketak egonen dira, familiek egindako hautuen eta populazio-mugimenduen ondorioz.

Ikastetxe bakarra duten herrietan, aurre-matrikulazioek aurreikuspen horien aldean gora egiten badute eta horrek talde gehiago egotea eragiten badu, doikuntza automatikoki eginen da eta beste talde bat sortuko da.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-17/PES-00008 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Fernando Remacha Kontserbatorioaren kudeaketarako eta finantzaketarako Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak daukan irizpidea, zeina Tuterako Udalak jada ezagutzen baitu, honako honetan datza: lankidetza hitzarmena berritzean aurreko aldietako antzeko baldintzetan, baina finantzaketa, aurreko hitzarmenekin alderatuta, nabarmen handituz.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, Tuterako Fernando Remacha Udalaren Musika Kontserbatorioaren finantzaketa, kudeaketa eta zerbitzua aztertu ondoren, ondorioztatu du zerbitzu egokia emateko kudeaketa- eta finantzaketa- modu onena dela kudeaketan eta zerbitzuan udalaren titulartasunari eustea eta Hezkuntza Departamentuaren eta Tuterako Udalaren arteko lankidetzako urte anitzeko hitzarmenari eustea, Kontserbatorioaren beharrizanak egoki finantzatzeko.

Kontserbatorioaren kudeaketan udal titulartasunari eustea beharrezkoa da, zeren eta bai espazioak bai irakasleak “Fernando Remacha” Udalaren Musika Eskolarekin partekatzen baititu.

Une honetan amaitzekotan daude datozen urteetan Fernando Remacha Kontserbatorioaren finantzaketarako behin betiko proposamena zehazteko aukera emanen duen azterketa eta analisia.

Iruñean, 2017ko otsailaren 6an

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kostu osoaren finantzaketari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kostu osoaren finantzaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak 9-17/PES-00009 parlamentu-galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak Tuterako Fernando Remacha kontserbatorioaren kostuaren ehuneko ehun finantzatzeko asmoa du. Aurtengo ekitaldirako kontu-saila aurreko ekitaldietakoa baino askoz handiagoa da, eta jo dugu nahikoa dela Tuterako Udalak ekitaldiaren amaieran justifikatuko dituen gastuak estaltzeko.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 20an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa finantzatze aldera Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmenean jasotako txostena egiteari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa finantzatze aldera Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmenean jasotako txostena egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak 9-17/PES-00010 parlamentu-galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko foru Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako 9-16/POR-00404 eta 9-16/PEI-00571 informazio-eskaeren erantzunetan argitu genuen bezala, Tuterako Udalarekin sinatutako hitzarmenak ez du jasotzen txosten bat idatzi behar izatea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 20an

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## Galdera, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Itxarote-zerrendetarako estrategiak eta lehentasunezko programak” kontusailari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00011), informazioa nahi baitu “Lehentasunezko programak eta itxarote-zerrenden estrategia” izeneko kontu-sailari buruz”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

“Lehentasunezko programak eta itxaron-zerrenden estrategia” kontu-sailari eman zaion erabilera zehatza izan da profesional batzuk kontratatzea, itxaron-zerrendak gutxitzera bideratutako programa batzuk egin ahal izateko.

Kontu-sail horretatik exekutatu den aurrekontua, berriz, 656.085 eurokoa izan da Nafarroako Ospitalegunean.

Gainera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean 104.727 euro egiten duten kontratazioak egin dira 2016an zehar, itxaron-zerrenda gutxitzeko helburuarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

---

## Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tuterarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tuterarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuteran eragina duten eta handitu diren 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako kontu-sailei buruz. Galdera 90. sarrera-zenbakiarekin erregistratu da, urtarrilaren 9an (9-17/PES-00012). Horri erantzuteko Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak dokumentu bat erantsi du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

| Proiektua | Org | E | Fun | 2017ko izena | 2017 | Hasiera, 2016 | 2017-2016 aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 420001 | 42440 | 4609 | 322503 | Tuterako Udalarekiko hitzarmena, Udalaren Musika Kontserbatorioaren funtzionamendurakoa. | 320.000 | 270.235 | 49.765 |
| 720000 | 71500 | 7609 | 414400 | (E) Tuterako Udalarentzako diru-laguntza, A68ren ordezko bidea nekazaritza-ibilgailuen zirkulaziorako egokitzeko. | 128.776 | 0 | 128.776 |
| 780001 | 78300 | 7609 | 261600 | Huertas Mayores egokitzea ibilgailuen erabilerarako Camino del Rape izenekotik N-121C errepideraino: Benjamín de Tudela BHIren sarbideak. | 0 | | 0 |
| 830002 | 83200 | 2276 | 432102 | NASERTICi egindako enkargua. Tuterako turismo bulegoaren kudeaketarako laguntza | 60.000 | 40.000 | 20.000 |
| 900003 | 91600 | 7609 | 231600 | (E) Etxe gabeko pertsonentzako Altsasuko eta Tuterako aterpeetan obrak egiteko inbertsioetarako transferentzia | 100.000 | 0 | 100.000 |
| A50000 | A5420 | 4609 | 336100 | Tuterako Udalari transferitutako instalazioak | 60.000 | 65.000 | -5.000 |
| B10004 | B1210 | 4819 | 921103 | Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Misioetarako Ordezkaritza Xabierraldietako azpiegiturak | 3.000 | 1.345 | 1.655 |
| B10007 | B1310 | 2020 | 467900 | Tuterako Herritarrentzako Arreta Bulegoa | 61.300 | 0 | 61.300 |
| 545000 | 52400 | 1100 | 312300 | Behin-behineko langileen soldatak | 113.776 | 57.641 | 56.135 |
| 545000 | 52400 | 1200 | 312300 | Langile finkoen lansariak | 13.931.726 | 13.685.835 | 245.891 |
| 545000 | 52400 | 1210 | 312300 | Lanpostu erreserbatuak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak | 2.229.698 | 2.035.209 | 194.489 |
| 545000 | 52400 | 1211 | 312300 | Lanpostu hutsak betetzeko kontrataturiko langileen soldatak | 4.017.600 | 3.029.755 | 987.845 |
| 545000 | 52400 | 1220 | 312300 | Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak | 1.264.730 | 1.435.395 | -170.665 |
| 545000 | 52400 | 1221 | 312300 | Kanpainetarako kontrataturiko langileen ordainsariak | 890.580 | 1.028.736 | -138.156 |
| 545000 | 52400 | 1250 | 312300 | Ordezko lanak egiteko kontratatu langileen ordainsariak | 1.640.244 | 1.868.782 | -228.538 |
| 545000 | 52400 | 1400 | 312300 | Langileen ordainsariak | 3.323.069 | 3.276.804 | 46.265 |
| 545000 | 52400 | 1410 | 312300 | Lanbide-karreraren ordainsariak | 953.470 | 924.481 | 28.989 |
| 545000 | 52400 | 1600 | 312300 | Gizarte Segurantza | 7.609.086 | 7.450.922 | 158.164 |
| 545000 | 52400 | 1703 | 312300 | Jaiegunean lan egitearen ordainketa | 817.755 | 718.205 | 99.550 |
| 545000 | 52400 | 1704 | 312300 | Guardiak egitearen osagarriak | 2.645.155 | 2.648.584 | -3.429 |
| 545000 | 52400 | 1705 | 312300 | Gaueko txandan lan egitearen osagarria | 577.278 | 522.765 | 54.513 |
| 545000 | 52400 | 1710 | 312300 | Produktibitate-osagarria | 519.772 | 357.052 | 162.720 |
| 545000 | 52400 | 2050 | 312300 | Altzarien eta gauzen errentamenduak | 20.000 | 20.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2120 | 312300 | Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | 790.000 | 754.200 | 35.800 |
| 545000 | 52400 | 2170 | 312300 | Ekipamendu medikoak | 420.000 | 429.000 | -9.000 |
| 545000 | 52400 | 2190 | 312300 | Bestelako ibilgetu materiala | 30.000 | 30.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2200 | 312300 | Bulegoko materiala | 112.000 | 101.000 | 11.000 |
| 545000 | 52400 | 2202 | 312300 | Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak | 9.000 | 9.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2213 | 312300 | Protesiak | 1.300.000 | 926.000 | 374.000 |
| 545000 | 52400 | 2214 | 312300 | Kontsumoko erremintak eta tresna txikiak | 95.000 | 86.000 | 9.000 |
| 545000 | 52400 | 2215 | 312300 | Farmakoak | 12.400.000 | 11.471.020 | 928.980 |
| 545000 | 52400 | 2216 | 312300 | Kontsumitzeko osasun alorreko materiala | 2.700.000 | 2.434.000 | 266.000 |

| Proiektua | Org | E | Fun | 2017ko izena | 2017 | Hasiera, 2016 | 2017-2016 aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 545000 | 52400 | 2217 | 312300 | Jantzi eta arropa sanitarioak | 20.000 | 20.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2219 | 312300 | Bestelako hornidura bereziak | 17.000 | 14.000 | 3.000 |
| 545000 | 52400 | 2221 | 312300 | Posta eta mezularitza | 56.000 | 48.000 | 8.000 |
| 545000 | 52400 | 2231 | 312300 | Osasun garraioa | 16.000 | 3.000 | 13.000 |
| 545000 | 52400 | 2239 | 312300 | Bestelako garraio gastuak | 1.000 | 5.000 | -4.000 |
| 545000 | 52400 | 2266 | 312300 | Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak | 25.000 | 0 | 25.000 |
| 545000 | 52400 | 2269 | 312300 | Bestelako gastu askotarikoak | 5.000 | 5.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2270 | 312300 | Ikuzketako zerbitzua kontratatzea | 465.000 | 457.000 | 8.000 |
| 545000 | 52400 | 2271 | 312300 | Garbiketa zerbitzua kontratatzea | 1.320.000 | 1.378.000 | -58.000 |
| 545000 | 52400 | 2274 | 312300 | Segurtasun-zerbitzuak | 113.000 | 113.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2276 | 312300 | Azterlanak eta lan teknikoak | 65.000 | 63.000 | 2.000 |
| 545000 | 52400 | 2277 | 312300 | Hondakinen kudeaketa | 111.000 | 101.000 | 10.000 |
| 545000 | 52400 | 2278 | 312300 | Elikadurarako kanpoko kontratuak | 973.000 | 930.000 | 43.000 |
| 545000 | 52400 | 2279 | 312300 | Hirugarrenek egindako bestelako lanak | 62.984 | 56.000 | 6.984 |
| 545000 | 52400 | 2279 | 312302 | Laguntza erlijiosoa | 8.000 | 8.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2280 | 312300 | Energia elektrikoa, ura eta berokuntza | 950.000 | 1.105.000 | -155.000 |
| 545000 | 52400 | 2281 | 312300 | Erregaiak eta labaingarriak | 2.000 | 2.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2283 | 312300 | Konponketarako eta zainketarako materiala | 175.000 | 175.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2284 | 312300 | Garbiketarako materiala | 80.000 | 80.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 2286 | 312300 | Laborategiko produktu kimikoak | 1.226.000 | 1.040.000 | 186.000 |
| 545000 | 52400 | 2287 | 312300 | Gas medikoak | 166.000 | 161.000 | 5.000 |
| 545000 | 52400 | 2301 | 312300 | Lokomozioa eta bidaia-gastuak | 29.000 | 20.000 | 9.000 |
| 545000 | 52400 | 4819 | 312302 | Gurutze Gorriaren Tutera-Iruña garraio onkologikoa | 80.000 | 80.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 6020 | 312800 | Obra txikiak, instalazioen hobekuntzak eta segurtasun plana | 850.000 | 932.000 | -82.000 |
| 545000 | 52400 | 6020 | 312802 | Birmoldatze planeko obrak | 390.000 | 120.000 | 270.000 |
| 545000 | 52400 | 6020 | 312803 | Energia-efizientziarako jarduketak | 50.000 | 50.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 6020 | 312804 | Lan-arriskuen prebentziorako jarduketak | 10.000 | 10.000 | 0 |
| 545000 | 52400 | 6057 | 312800 | (E) Ekipamendu medikoak | 470.000 | 570.000 | -100.000 |
| 545000 | 52400 | 6059 | 312800 | Tuterako Osasun Barrutiko birmoldatze-obretako ekipamendu orokorra | 0 | 225.000 | -225.000 |
| 545000 | 52400 | 6059 | 312802 | Beste altzari batzuk eta ekipoa | 25.000 | 0 | 25.000 |
| 545001 | 52400 | 6020 | 312800 | Osasun etxeak eta kontsultategiak hobetzeko planeko inbertsioak | 125.000 | 0 | 125.000 |
| 545001 | 52400 | 6057 | 312800 | Osasun etxe eta kontsultategietarako ekipamendu medikoak | 100.000 | 0 | 100.000 |
| 545001 | 52400 | 6057 | 312802 | (E) Landa-eremuko arreta hobetzea | 200.000 | 0 | 200.000 |
| 545001 | 52400 | 6059 | 312800 | Osasun etxe eta kontsultategietarako ekipamendu orokorra | 31.000 | 0 | 31.000 |
| 545001 | 52420 | 1200 | 312200 | Langile finkoen lansariak | 5.584.437 | 6.093.363 | -508.926 |
| 545001 | 52420 | 1210 | 312200 | Lanpostu erreserbatuak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak | 306.570 | 227.328 | 79.242 |

| Proiektua | Org | E | Fun | 2017ko izena | 2017 | Hasiera, 2016 | 2017-2016 aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 545001 | 52420 | 1211 | 312200 | Lanpostu hutsak betetzeko kontratatuiko langileen soldatak | 1.298.233 | 1.218.766 | 79.467 |
| 545001 | 52420 | 1220 | 312200 | Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak | 799.490 | 229.766 | 569.724 |
| 545001 | 52420 | 1250 | 312200 | Ordezko lanak egiteko kontratatu langileen ordainsariak | 598.697 | 911.486 | -312.789 |
| 545001 | 52420 | 1400 | 312200 | Langileen ordainsariak | 1.284.039 | 1.401.663 | -117.624 |
| 545001 | 52420 | 1410 | 312200 | Lanbide-karreraren ordainsariak | 531.501 | 559.035 | -27.534 |
| 545001 | 52420 | 1600 | 312200 | Gizarte Segurantza | 2.823.647 | 2.599.879 | 223.768 |
| 545001 | 52420 | 1703 | 312200 | Jaiegunean lan egitearen ordainketa | 244.668 | 206.203 | 38.465 |
| 545001 | 52420 | 1704 | 312200 | Guardiak egitearen osagarriak | 549.205 | 617.232 | -68.027 |
| 545001 | 52420 | 1705 | 312200 | Gaueko txandan lan egitearen osagarria | 184.590 | 185.174 | -584 |
| 545001 | 52420 | 1706 | 312200 | Sakabanatze geografikoarengatiko osagarria | 313.364 | 309.346 | 4.018 |
| 545001 | 52420 | 1709 | 312200 | Kapitazio-osagarria | 392.373 | 389.129 | 3.244 |
| 545001 | 52420 | 1710 | 312200 | Produktibitate-osagarria | 123.928 | 170.738 | -46.810 |
| 545001 | 52420 | 2120 | 312200 | Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | 95.000 | 102.000 | -7.000 |
| 545001 | 52420 | 2170 | 312200 | Ekipamendu medikoak | 19.000 | 17.000 | 2.000 |
| 545001 | 52420 | 2190 | 312200 | Bestelako ibilgetu materiala | 7.000 | 7.000 | 0 |
| 545001 | 52420 | 2200 | 312200 | Bulegoko materiala | 35.000 | 32.000 | 3.000 |
| 545001 | 52420 | 2214 | 312200 | Kontsumoko erremintak eta tresna txikiak | 37.000 | 27.000 | 10.000 |
| 545001 | 52420 | 2215 | 312200 | Farmakoak | 80.000 | 65.000 | 15.000 |
| 545001 | 52420 | 2216 | 312200 | Kontsumitzeko osasun alorreko materiala | 285.000 | 263.000 | 22.000 |
| 545001 | 52420 | 2217 | 312200 | Jantzi eta arropa sanitarioak | 7.000 | 7.000 | 0 |
| 545001 | 52420 | 2221 | 312200 | Posta eta mezularitza | 2.000 | 2.000 | 0 |
| 545001 | 52420 | 2269 | 312200 | Zenbait gastu | 7.000 | 2.000 | 5.000 |
| 545001 | 52420 | 2270 | 312200 | Ikuzketako zerbitzua kontratatzea | 26.000 | 25.000 | 1.000 |
| 545001 | 52420 | 2271 | 312200 | Garbiketa zerbitzua kontratatzea | 399.000 | 395.000 | 4.000 |
| 545001 | 52420 | 2277 | 312200 | Hondakinen kudeaketa | 15.000 | 15.000 | 0 |
| 545001 | 52420 | 2280 | 312200 | Energia elektrikoa, ura eta berokuntza | 176.000 | 175.000 | 1.000 |
| 545001 | 52420 | 2281 | 312200 | Erregaiak eta labaingarriak | 1.000 | 1.000 | 0 |
| 545001 | 52420 | 2284 | 312200 | Garbiketarako materiala | 9.000 | 11.000 | -2.000 |
| 545001 | 52420 | 2286 | 312200 | Laborategiko produktu kimikoak | 317.000 | 340.000 | -23.000 |
| 545001 | 52420 | 2287 | 312200 | Gas medikoak | 5.000 | 4.000 | 1.000 |
| 545001 | 52420 | 2301 | 312200 | Lokomozioa eta bidaia-gastuak | 17.000 | 12.000 | 5.000 |
| 545001 | 52420 | 2301 | 312202 | Lokomozioa eta bidaia-gastuak Arreta Jarraiturako Akordio Kolektiboa | 40.000 | 39.000 | 1.000 |
| 545001 | 52420 | 7609 | 312800 | Ribaforadako Udalarentzako transferentzia, kontsultategi berria eraikitzekoa | 700.000 | 300.000 | 400.000 |
| GUZTIRA | | | | | 84.673.741 | 80.408.074 | 4.265.667 |

# Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tafallarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Tafallarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallan eragina duten eta handitu diren 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako kontu-sailei buruz. Galdera 91. sarrera-zenbakiarekin erregistratu da, urtarrilaren 9an (9-17/PES-00013). Horri erantzuteko Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak dokumentu bat erantsi du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

| Proiektua | Org | E | Fun | 2017ko izena | 2017 | Hasiera, 2016 | 2017-2016 aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 840004 | 84100 | 6019 | 441102 | Tafallako geltokia | 555.000 | 75.510 | 479.490 |
| A20002 | A2530 | 7609 | 334102 | Tafallako Kulturgunerako ekipamenduaren bigarren fasea | 0 | 375.000 | -375.000 |
| GUZTIRA | | | | | 555.000 | 450.510 | 104.490 |

# Galdera, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Lizarrarako jasotako kontu-sailei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Lizarrarako jasotako kontu-sailei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Lizarran eragina duten eta handitu diren 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako kontu-sailei buruz. Galdera 92. sarrera-zenbakiarekin erregistratu da, urtarrilaren 9an (9-17/PES-00014). Horri erantzuteko Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak dokumentu bat erantsi du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

| Proiektua | Org | E | Fun | 2017ko izena | 2017 | Hasiera, 2016 | 2017-2016 aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A20002 | A2530 | 7609 | 334105 | (E) Lizarrako antzinako udaletxea izan zen XVIII. mendeko jauregiaren egitura zaharberritzea | 200.200 | 0 | 200.200 |
| 546000 | 52500 | 1100 | 312300 | Behin-behineko langileen soldatak | 57.641 | 57.641 | 0 |
| 546000 | 52500 | 1200 | 312300 | Langile finkoen lansariak | 9.267.495 | 9.464.039 | -196.544 |
| 546000 | 52500 | 1210 | 312300 | Lanpostu erreserbatuak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak | 1.587.636 | 1.473.155 | 114.481 |
| 546000 | 52500 | 1211 | 312300 | Lanpostu hutsak betetzeko kontrataturiko langileen soldatak | 1.471.440 | 1.429.701 | 41.739 |
| 546000 | 52500 | 1220 | 312300 | Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak | 1.103.173 | 572.431 | 530.742 |
| 546000 | 52500 | 1250 | 312300 | Ordezko lanak egiteko kontratatu langileen ordainsariak | 1.278.111 | 1.693.754 | -415.643 |
| 546000 | 52500 | 1400 | 312300 | Langileen ordainsariak | 2.016.342 | 2.073.736 | -57.394 |
| 546000 | 52500 | 1410 | 312300 | Lanbide-karreraren ordainsariak | 517.375 | 482.543 | 34.832 |
| 546000 | 52500 | 1600 | 312300 | Gizarte Segurantza | 4.664.686 | 4.295.799 | 368.887 |
| 546000 | 52500 | 1703 | 312300 | Jaiegunean lan egitearen ordainketa | 517.945 | 517.330 | 615 |
| 546000 | 52500 | 1704 | 312300 | Guardiak egitearen osagarriak | 1.926.510 | 1.913.425 | 13.085 |
| 546000 | 52500 | 1705 | 312300 | Gaueko txandan lan egitearen osagarria | 347.276 | 341.188 | 6.088 |
| 546000 | 52500 | 1710 | 312300 | Produktibitate-osagarria | 206.881 | 206.881 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2020 | 312300 | Eraikinen eta bestelako eraikuntzen errentamenduak | 23.706 | 23.706 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2050 | 312300 | Altzarien eta gauzen errentamenduak | 8.500 | 8.500 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2120 | 312300 | Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | 455.000 | 455.000 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2170 | 312300 | Ekipamendu medikoak | 280.000 | 260.000 | 20.000 |
| 546000 | 52500 | 2190 | 312300 | Bestelako ibilgetu materiala | 12.120 | 12.000 | 120 |
| 546000 | 52500 | 2200 | 312300 | Bulegoko materiala | 55.000 | 55.000 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2202 | 312300 | Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak | 14.000 | 14.000 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2210 | 312300 | Elikadura | 222.200 | 220.000 | 2.200 |
| 546000 | 52500 | 2213 | 312300 | Protesiak | 800.000 | 750.000 | 50.000 |
| 546000 | 52500 | 2214 | 312300 | Kontsumoko erremintak eta tresna txikiak | 62.000 | 55.000 | 7.000 |
| 546000 | 52500 | 2215 | 312300 | Farmakoak | 3.312.000 | 1.943.600 | 1.368.400 |
| 546000 | 52500 | 2216 | 312300 | Kontsumitzeko osasun alorreko materiala | 1.210.000 | 1.250.000 | -40.000 |
| 546000 | 52500 | 2217 | 312300 | Jantzi eta arropa sanitarioak | 14.000 | 14.000 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2220 | 312300 | Telekomunikazio zerbitzuak | 0 | 2.526 | -2.526 |
| 546000 | 52500 | 2221 | 312300 | Posta eta mezularitza | 30.000 | 30.000 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2231 | 312300 | Osasun garraioa | 6.000 | 6.000 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2239 | 312300 | Bestelako garraio gastuak | 2.800 | 2.800 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2266 | 312300 | Ikastaroak eta prestakuntza | 17.190 | 2.190 | 15.000 |
| 546000 | 52500 | 2269 | 312300 | Zenbait gastu | 800 | 800 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2270 | 312300 | Ikuzketako zerbitzua kontratatzea | 265.000 | 255.000 | 10.000 |
| 546000 | 52500 | 2271 | 312300 | Garbiketa zerbitzua kontratatzea | 1.180.790 | 1.179.000 | 1.790 |
| 546000 | 52500 | 2274 | 312300 | Segurtasun-zerbitzuak | 102.854 | 105.000 | -2.146 |
| 546000 | 52500 | 2276 | 312300 | Azterlanak eta lan teknikoak | 25.000 | 22.000 | 3.000 |
| 546000 | 52500 | 2276 | 312302 | Historia klinikoen garbiketa eta digitalizazioa | 100.000 | 0 | 100.000 |
| 546000 | 52500 | 2277 | 312300 | Hondakinen kudeaketa | 42.420 | 42.000 | 420 |
| 546000 | 52500 | 2279 | 312300 | Hirugarrenek egindako bestelako lanak | 2.750 | 2.750 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2279 | 312302 | Laguntza erlijiosoa | 3.610 | 3.610 | 0 |
| 546000 | 52500 | 2280 | 312300 | Energia elektrikoa, ura eta berokuntza | 495.000 | 505.000 | -10.000 |
| 546000 | 52500 | 2281 | 312300 | Erregaiak eta labaingarriak | 8.250 | 10.000 | -1.750 |
| 546000 | 52500 | 2283 | 312300 | Konponketarako eta zainketarako materiala | 132.200 | 120.000 | 12.200 |
| 546000 | 52500 | 2284 | 312300 | Garbiketarako materiala | 52.000 | 50.000 | 2.000 |
| 546000 | 52500 | 2286 | 312300 | Laborategiko produktu kimikoak | 1.100.000 | 1.020.000 | 80.000 |
| 546000 | 52500 | 2287 | 312300 | Gas medikoak | 56.000 | 54.000 | 2.000 |
| 546000 | 52500 | 2301 | 312300 | Lokomozioa eta bidaia-gastuak | 19.000 | 19.000 | 0 |
| 546000 | 52500 | 6020 | 312800 | Obra txikiak, instalazioen hobekuntzak eta segurtasun plana | 10.000 | 356.000 | -346.000 |
| 546000 | 52500 | 6020 | 312802 | Birmoldatze planeko obrak | 2.229.336 | 1.000.000 | 1.229.336 |
| 546000 | 52500 | 6020 | 312803 | Lizarrako Osasun Barrutiko energia-efizientziarako jarduketak | 0 | 30.000 | -30.000 |
| 546000 | 52500 | 6020 | 312804 | Lizarrako Osasun Barrutiko lan-arriskuen prebentziorako jarduketak | 0 | 10.000 | -10.000 |

| Proiektua | Org | E | Fun | 2017ko izena | 2017 | Hasiera, 2016 | 2017-2016 aldea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 546000 | 52500 | 6057 | 312800 | Ekipamendu medikoak | 277.000 | 414.000 | -137.000 |
| 546000 | 52500 | 6059 | 312800 | Ekipamendu orokorra | 20.000 | 30.000 | -10.000 |
| 546000 | 52500 | 6059 | 312802 | Ekipamendu orokorra: Lizarrako Osasun Barrutiko lan-arriskuen prebentziorako jarduketak | 0 | 5.000 | -5.000 |
| 546001 | 52500 | 6020 | 312200 | Osasun etxe berriak | 1.500.000 | 0 | 1.500.000 |
| 546001 | 52500 | 6020 | 312202 | Osasun etxeak hobetzeko plana | 51.000 | 0 | 51.000 |
| 546001 | 52500 | 6057 | 312200 | Osasun etxe eta kontsultategietarako ekipamendu medikoa | 36.700 | 0 | 36.700 |
| 546001 | 52500 | 6057 | 312202 | (E) Landa-eremuko arreta hobetzea | 200.000 | 0 | 200.000 |
| 546001 | 52520 | 1200 | 312200 | Langile finkoen lansariak | 5.464.511 | 5.770.221 | -305.710 |
| 546001 | 52520 | 1210 | 312200 | Lanpostu erreserbatuak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak | 709.939 | 470.869 | 239.070 |
| 546001 | 52520 | 1211 | 312200 | Lanpostu hutsak betetzeko kontrataturiko langileen soldatak | 961.940 | 798.783 | 163.157 |
| 546001 | 52520 | 1220 | 312200 | Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak | 312.310 | 201.230 | 111.080 |
| 546001 | 52520 | 1250 | 312200 | Ordezko lanak egiteko kontratatu langileen ordainsariak | 1.143.737 | 1.102.203 | 41.534 |
| 546001 | 52520 | 1400 | 312200 | Langileen ordainsariak | 1.343.103 | 1.380.121 | -37.018 |
| 546001 | 52520 | 1410 | 312200 | Lanbide-karreraren ordainsariak | 549.307 | 556.967 | -7.660 |
| 546001 | 52520 | 1600 | 312200 | Gizarte Segurantza | 2.919.691 | 2.382.066 | 537.625 |
| 546001 | 52520 | 1703 | 312200 | Jaiegunean lan egitearen ordainketa | 347.909 | 320.287 | 27.622 |
| 546001 | 52520 | 1704 | 312200 | Guardiak egitearen osagarriak | 940.095 | 1.024.713 | -84.618 |
| 546001 | 52520 | 1705 | 312200 | Gaueko txandan lan egitearen osagarria | 284.689 | 264.486 | 20.203 |
| 546001 | 52520 | 1706 | 312200 | Sakabanatze geografikoarengatiko osagarria | 266.411 | 262.916 | 3.495 |
| 546001 | 52520 | 1709 | 312200 | Kapitazio-osagarria | 274.615 | 274.732 | -117 |
| 546001 | 52520 | 1710 | 312200 | Produktibitate-osagarria | 178.711 | 150.153 | 28.558 |
| 546001 | 52520 | 2050 | 312200 | Altzarien eta gauzen errentamenduak | 5.200 | 4.221 | 979 |
| 546001 | 52520 | 2120 | 312200 | Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | 105.000 | 112.064 | -7.064 |
| 546001 | 52520 | 2170 | 312200 | Ekipamendu medikoak | 16.000 | 13.744 | 2.256 |
| 546001 | 52520 | 2190 | 312200 | Bestelako ibilgetu materiala | 6.000 | 7.500 | -1.500 |
| 546001 | 52520 | 2200 | 312200 | Bulegoko materiala | 18.000 | 18.848 | -848 |
| 546001 | 52520 | 2214 | 312200 | Kontsumoko erremintak eta tresna txikiak | 30.000 | 25.514 | 4.486 |
| 546001 | 52520 | 2215 | 312200 | Farmakoak | 80.000 | 73.883 | 6.117 |
| 546001 | 52520 | 2216 | 312200 | Kontsumitzeko osasun alorreko materiala | 275.000 | 262.178 | 12.822 |
| 546001 | 52520 | 2217 | 312200 | Jantzi eta arropa sanitarioak | 2.000 | 1.900 | 100 |
| 546001 | 52520 | 2221 | 312200 | Posta eta mezularitza | 500 | 2.000 | -1.500 |
| 546001 | 52520 | 2266 | 312200 | Ikastaroak eta prestakuntza | 3.000 | 0 | 3.000 |
| 546001 | 52520 | 2269 | 312200 | Zenbait gastu | 1.000 | 1.300 | -300 |
| 546001 | 52520 | 2270 | 312200 | Ikuzketako zerbitzua kontratatzea | 24.502 | 25.127 | -625 |
| 546001 | 52520 | 2271 | 312200 | Garbiketa zerbitzua kontratatzea | 360.257 | 356.690 | 3.567 |
| 546001 | 52520 | 2276 | 312200 | Historia klinikoen garbiketa eta digitalizazioa | 142.000 | 0 | 142.000 |
| 546001 | 52520 | 2277 | 312200 | Hondakinen kudeaketa | 18.000 | 14.614 | 3.386 |
| 546001 | 52520 | 2280 | 312200 | Energia elektrikoa, ura eta berokuntza | 145.000 | 149.741 | -4.741 |
| 546001 | 52520 | 2281 | 312200 | Erregaiak eta labaingarriak | 1.000 | 1.000 | 0 |
| 546001 | 52520 | 2283 | 312200 | Konponketarako eta zainketarako materiala | 20.000 | 0 | 20.000 |
| 546001 | 52520 | 2284 | 312200 | Garbiketarako materiala | 7.000 | 7.034 | -34 |
| 546001 | 52520 | 2286 | 312200 | Laborategiko produktu kimikoak | 290.000 | 280.247 | 9.753 |
| 546001 | 52520 | 2287 | 312200 | Gas medikoak | 9.000 | 8.051 | 949 |
| 546001 | 52520 | 2301 | 312200 | Lokomozioa eta bidaia-gastuak | 7.500 | 4.138 | 3.362 |
| 546001 | 52520 | 2301 | 312202 | Lokomozioa eta bidaia-gastuak Arreta Jarraiturako Akordio Kolektiboa | 21.500 | 20.099 | 1.401 |
| | | | | GUZTIRA | 56.881.364 | 51.208.745 | 5.672.619 |

# Galdera, Josefina Arregui zentroa dela-eta onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Josefina Arregui zentroa dela-eta onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00016), informazioa nahi baitu “Josefina Arregui zentroa dela-eta berriki onetsitako mozioari buruz”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Zer urrats egin dira edo egiten ari dira mozioa osorik nahiz hein batean bete dadin, kontuan hartuta harentzako kontu-saila handitu dela?

Dementzia prozesua barne biltzen zuen kronikoen estrategia ezarri zenetik urtebetera egindako ebaluazioaren ondoren, 2016an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Eriaren Osasun Laguntzarako Zuzendaritzaren menpekoa den Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuak dementzia duten gaixoen arretarako zirkuituak finkatu ditu, gaixotasunaren larritasun-maila desberdinen arabera.

Prozesu horretan, honakoek hartu dute parte: dementzia dutenen arretan esku hartzen duten profesionalak eta haien zaintzaileak, familiako sendagileak, oinarrizko osasun laguntzako erizainak, gizarte langileak, neurologoak, geriatrak eta ospitale-esparruko erizainak. Halaber, harremanetan egon gara Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko profesionalekin, Josefina Arregui zentroko profesionalekin eta gaixoen elkarteen ordezkariekin.

Global Dementia Scaleren (GDS) arabera 5ekoak edo gehiagokoak diren dementzia horietan, edo balioespen integral larria edo aringarria dutenetan, dementzia dutenen eta haien zaintzaileen kontrola Oinarrizko Osasun Laguntzan egiten da, eta horretarako zenbait euskarri badaude:

– García Orcoyen Ospitaleko eta Reina Sofía Ospitaleko kronikoen unitateak.

– Nafarroako Ospitaleguneko Gaixo Kroniko eta Pluripatologikoen Unitatea (dementzia eta bestelako gaixotasunak dituzten erientzat), Barne Medikuntzako espezialistak, geriatrak eta erizaintzako langileak badauzkana.

– Nafarroako Ospitaleguneko Dementzia Unitatea: diziplina anitzeko unitate bat Neurologiako, Geriatriako eta Psikiatriako sendagile espezialistak dituena, bai eta Erizaintzako langileak eta neuropsikologo bat ere.

– San Juan de Dios Ospitaleko Zainketa Aringarrien Unitateko etxez etxeko laguntza-taldeak.

– García Orcoyen Ospitalean, Reina Sofía Ospitalean eta Nafarroako Ospitalegunean larrientzako oheetan zuzenean sartzeko aukera.

– Etxez etxeko ospitaleratze-zerbitzuan zuzenean sartzeko aukera.

– Josefina Arregui zentroan zuzenean sartzeko aukera.

Kronikoen Estrategiaren esparruan dementzia dutenentzako arretari buruzko agirian, Josefína Arregui zentroan sartzeko prozedura berri bat zehazten da, zentroko profesionalekin adostua, sartzeko beharrari buruzko irizpide objektiboetan oinarritua. Sartzearen lehentasuna hartzen da kontuan, Cummings testaren bitartez, eta test hori, gainera Laguntza Espezializatuko eta Oinarrizko Osasun Laguntzako historia kliniko informatizatuan sartu da.

Agiri horrek, halaber, jasotzen du dementzia dutenentzako egonaldi ertaineko oheak edukitzeko beharraren plangintza definitu behar dela. Hori, izan ere, Osasun Zuzendaritza Nagusiari helarazi zaio, Osasun Departamentuaren Plangintza Atalak egin dezan.

Auto-ebaluazio klinikoko adierazle batzuk zehaztu dira, eta halakoak progresiboki sartu dira aginte klinikoko koadroetan, profesionalei pertsona horiek maneiatzen laguntzeko. Josefina Arregui zentroko profesionalek ere erabili ahalko dute, laguntza-prozesuan esku hartzen duten eragileak baitira.

Ebaluazio jarraitu bat eginen da, eta horrek aukera emanen du prozesuan aldaketak egiteko, hain zuzen ere laguntzaren hobekuntzari begira.

Itun berri bat sinatuko al da, halako moduan non egonkortasuna eta bideragarritasuna ziurtatuko baitira?

Egungo kontratua 2015eko martxoaren 16an hasi zen.

Ituntze sozial eta sanitarioari buruzko foru lege proiektua onestearen zain gaude, zentro horrekin beste itun bat egin ahal izateko.

Ikuspuntu administratibo eta juridikotik kudeaketa egokia bermatzeko, ituna 2016ko urtarrilaren 1ean luzatu zen, eta 2017ko urtarrilaren 1ean berriz ere luzatu da. Egungo kontratuaren gehieneko indarraldia 2018ko abenduaren 31ra artekoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

---

## Galdera, “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2” proiektuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2” proiektuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna

“EH Bildu Nafarroa” parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari David Anaut Peña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2” proiektua dela-eta esku-hartze arkeologiko bat baimentzeko Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiak emandako 384/2016 Ebazpenari buruz. Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak informatzeko duena:

Zure idatzizko galderari dela eta, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari dagokiona erantzun diezazuket; zehazkiago, Arkeologia Atalari dagokiona:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak baimena eman zuen urgentziazko esku-hartze arkeologiko hori egiteko, Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legeak obrak egiteari eta kautelazko neurriak hartzeari buruz 59.3 eta 58.3 artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritakoari jarraituz.

Urtarrilaren 13an, Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologia Atalean “Informe de impacto sobre el Patrimonio Cultural de las labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 220 kv Itxaso-Orkoien 2” izeneko txostena jaso zen, GAEMArqueólogosek egina.

Bestalde, aipatu beharra dago espediente horren izapidetze administratiboa ez dagokiola Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari, eta, horrenbestez, ezin dudala eskaini proiektuaren egoerari, prozedura-motari eta datei buruz eskatutako informazioa.

Halaber, Arkeologiako zerbitzu teknikoek informazioa emanen dute proiektuak Ondare Arkeologikoan izan ditzakeen eraginei buruz, haren izapidetzea dela-eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legeko lurralde antolamenduko eta hirigintza-planeamenduko tresnei buruzko 32. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

**Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna**

“EH Bildu Nafarroa” parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari David Anaut Peña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 KV Itxaso-Orkoien 2” proiektua dela-eta esku-hartze arkeologiko bat baimentzeko Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiak emandako 384/2016 Ebazpenari buruz, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna. Red Eléctrica Españolak sustatutako proiektuak berekin dakar linea hori osatzen duten 138 euskarriez gainera beste 31 jartzea. Euskarriak honako herri hauetan egonen dira: Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Arakil, Berriobeiti eta Orkoien. Ebazpenak ezartzen du proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eskatzen duela (“eboluzioa” dio jatorrizko testuak), eta haren atal bat izanen dela ondare arkeologikoari buruzko azterlana (9-17-/PES-00017). Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Aipatutako proiektuaren (“Labores de aumento de capacidad (repotenciación) de la línea eléctrica a 200 kV Itxaso-Orkoien 2”) prozedura administratiboari dagokionez, zein da proiektuaren egungo egoera eta zein dira egiteko dauden urratsak?

Erantzuna: Dauzkan ezaugarriak direla eta, proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hori dela eta, Red Eléctrica de España SA sustatzaileak Energia, Turismo eta Agenda Elektronikoaren Ministerioan aurkeztu du ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuari hasiera emateko eskabidea, harengandik lortu behar baitu proiekturako baimena. Ministerio horrek dokumentazioa igorri dio Estatuko Administrazioko ingurumen organoari —Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Ingurumen Ebaluaziorako Zuzendariordetza Orokorrari—, ingurumen-izapidetzea has dezan.

Galdera:

Proiektuaren ingurumen-inpaktuari dagokionez, zein da, zehazki, jarraituko den prozedura administratiboa? Zein da azterlan horren hasierako eta amaierako datei buruz Nafarroak Gobernuak daukan aurreikuspena?

Erantzuna: Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren zuzendariordetza horrek Nafarroako Gobernuko Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari igorri dio espedientea —2017ko otsailaren 7an jaso da—, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko erabakiak ukitutako administrazioei kontsulta egiteko izapidearen barruan.

Egun horretatik aurrera, zuzendaritza horrek 30 egun balioduneko epea dauka erantzuteko ea proiektuak ingurumen-inpaktu adierazgarriak izan ditzakeen, betiere kontuan hartuta sustatzaileak bere ingurumen-agirian aurreikusi dituen prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak. Agiri hori Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren web-orrian dago.

Dokumentazioari buruzko azterlan teknikoa egin ondoren, Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraituz, proiektuaren balizko inpaktu adierazgarriei buruzko txosten bat igorriko zaio Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari. Azkenik, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa izanen da ingurumen-inpaktuari buruzko txostenean erabakiko duena ea proiektuak ohiko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duen ala gauzatu ote daitekeen, sustatzaileak jada aurkeztua duen dokumentazioan aurreikusitako neurri zuzentzaile guztiak aplikatuz ingurumen-inpaktu adierazgarririk sortu gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 13an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## Galdera, Zangozako bidezain-etxeei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zangozako bidezain-etxeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du (9-17/PES-00018) Zangozako bidezain-etxeei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Zangozako bidezainen etxebizitzak Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak dira.

Aurreikusita dago ahal bezain laster Nasuvinsa enpresa publikoak honako hauek xehetasunez aztertzea: etxe horien kontserbazio-egoera, zaharberritzeko aukera eta kostua eta Zangozan etxebizitza sozialaren eskariari erantzuteko dauden gainerako aukerak.

Halaber, aurreikusita dago datozen egunetan Zangozako Udalarekin hitzarmen bat sinatzea etxebizitzen alokairu-poltsa kudeatzeko, horren bidez udal horretan dagoen eskariari erantzuna emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

---

## Galdera, jakitekoa zer egoeratan dauden Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak, balizko uholdeek ahalik eta kalterik txikiena egitea bermatzeko.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zer egoeratan dauden Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak, balizko uholdeek ahalik eta kalterik txikiena egitea bermatzeko. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak ondoren azaltzen den idatziz erantzuteko galdera egin du ,eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna. Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, Unión del Pueblo Navarro-ren ekimenez erabaki bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena azterlan bat egin zezan, zuzenean nahiz Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinaturik, Ebro ibaiaren eta haren adarren (Aragoi, Arga, Alhama, Linares, Queiles eta Odrón) egoera errealari buruz. Azterlan horretan ibai horien zolen eta babes-lubeten egoeraren deskribapen bat jasoko zen.

Zioen azalpenean, erabakiak aipatzen zuen Nafarroako Parlamentuko kideek bisita egin zutela Tuterako udal-mugarteko hainbat eremutara, zeinetan bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguen eta lubeten egoeraren ondoriozko afekzioak, bereziki nabarmenak direnak 2014ko azaroan eta 2015eko o-

tsailean izandako gainezkatze eta euri-zaparradez geroztik.

Zioen azalpen horretan, UPNk bere egiten zuen Erriberako ureztatzaile-sindikatuen, nekazarien eta zenbait udalen iritzia, ibaien ibilguak garbitu beharrari buruzkoa (9-17-/PES-00019). Hauxe da erantzuna:

Galdera:

Nafarroako Gobernuaren ustez, Ebro ibaiaren eta haren adarren (Aragoi, Arga, Alhama, Linares, Queiles eta Odrón) Nafarroako Foru Komunitateko ibilguak baldintzarik egokienetan al daude, uholde kasuan beren afekzioa ezin txikiagoa izanen dela bermatzeko?

Erantzuna: Uholdeak fenomeno natural bat dira, ezin saihets daitekeena, Uholdeei buruzko Europako zuzentarauak dioen bezala. Gauza bat da uholdearen arriskugarritasuna (uholde bat aldi jakin batean gertatzeko dagoen probabilitatea, betiere arrazoi naturalen mende, funtsean euriaren mende dagoena), eta beste gauza bat da uholdeak gertatzeko arriskua, zeina konbinazio bat baita, uholde bat gertatzeko probabilitatearen eta giza osasunerako, ingurumenerako, kultur ondarerako, jarduera ekonomikorako eta azpiegituretarako izan ditzakeen ondorio negatiboen artekoa.

Uholdea gertatzeko arriskuari dagokionez, hori baita afekzioak kontuan hartzen dituena, Ebro ibaia da egoera okerrenean dagoena, zeren eta uraldi arruntetan edo arruntak baino gutxixeago direnetan (2 eta 5 urte arteko itzulera-aldia), nekazaritzan, hiri-tarteetan eta errepideetan kalte larriak gertatzen ari baitira, funtsean babes-lubetak haustearen ondorioz edo haien konta gainditzearen ondorioz; izan ere, halakoak lehen lerroan kokatuta daude neurri handi batean, eta horrek erakusten du joan den mendeko laurogeiko hamarkadan ezarritako sistema sakonki aztertu eta berrikusi behar dela. Ebro ibaiaren ondoren, arrisku eta afekzio handienak dauzkatenak Arga eta Aragoi ibaiak dira. Halere, haien behe-tarteetan egindako obrek haien arriskua gutxitu dute. Alhama, Linares, Queiles eta Odron ibaiek arrisku eta afekzio gutxiago dituzte, nahiz eta balizko arrisku aipagarriko arloak dauzkaten, batez ere gutxitan gertatzen diren uraldiak izatekotan.

Galdera:

Nafarroako Gobernuak bete al du Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia?

Erantzuna: Bai, Ebro ibaiko uholdeen diagnostiko gaurkotua egiten hasi gara, epe ertain eta luzean plangintza bat egiteko.

Galdera:

Azterlana zuzenean ala Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinaturik egin al du?

Erantzuna: Nafarroako Gobernuak honako lan hauek egin zituen joan den urtean:

1. Ebro ibaiaren ardatzeko lurren eredu digitalak eta ortofoto zaharrak biltzea, bai eta Eremu Inundagarrien Katrografia Sistema Nazionalaren datu gordin eta landuak ere: datu hidrologikoak, zubien inbentarioa eta fitxak eta eredu hidraulikoak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2016ko irailean igorri zituenak.

2. Azterlanen eta proposamenen bilketa: Fontellas-Buñuel tarteetan jarduketak egiteko aukeren azterketa (Nafarroako Gobernua, 2009) eta Ebroko Foroan parte hartutakoen proposamenen bilketa.

3. Ebro ibaiaren profilak egiteko kontratua egin zen. Horren arabera, Nafarroako Gobernuak Ebro ibaiaren 178 profil errepikatuko ditu, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2004an Nafarroan lortuak. Lana 2016ko azaroan hasi zen, eta aurreikusita dago 2017ko laugarren lauhilekoan amaitzea.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak aurreikusia du 2017ko otsail-martxoan hastea Ebroko ardatzaren babes-lubeten inbentario bat egiten, haien nibelatze topografikoarekin. Inbentario horrek zenbait autonomia erkidegotako lurraldeesparrua hartuko du. Lana 2016an enkargatu dio Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, PIMA ADAPTA programaren barruan (Ingurumena Sustatzeko Plana Espainian Klima Aldaketari egokitzeko). Nafarroako Gobernuko teknikariek haren zehaztapenetan hartu dute parte.

Galdera:

Zein da azterlan horren emaitza?

Erantzuna: Metodologiak eta prozedurak ezartzea eta datu ugari biltzea eskatzen duten azterlanak eta analisiak dira, gero haiek guztiak analizatzeko eta emaitzak lortzeko; hain zuzen ere, lehendik ez zeuden emaitzak. Prozesua 2017-2018an eginen da. Aurreko lanen emaitzekin, aurreikusita dago 2017an azterlan geomorfologikoak egitea, ibai-oheen egoera baloratzeko, bai eta eredu hidraulikoak ere, konponbideak diseinatzeari begira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

# Galdera, Iruña-Noaingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izatera bideratutako negoziazioak zertan diren jakitekoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruña-Noaingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izatera bideratutako negoziazioak zertan diren jakitekoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00020), jakin nahi baitu zertan diren Iruña-Noaingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izateko negoziazioak. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak komunikazio honen bitartez informatu beharrekoa:

2016ko urriaren 5eko gobernu-bilkuraren ondoren, foru exekutiboak Paris Charles de Gaulle, Frankfurt eta Amsterdamgo aireportuetan operatzen duten konpainiekin harremanetan jartzearen alde egin zuen, ezagutze aldera, batetik, prest dauden foru erkidegoan ezartzeko eta, bestetik, zen baldintzatan operatuko luketen linean.

Erabaki hori hartu zen Iruña-Noaingo aireportuaren aire-ibilbide berrietarako bidaiarien balizko eskaerari eta eragin ekonomikoari buruzko azterlana” izenekoaren diagnostikoa eta gomendioak aztertu ondoren.

Garapen Ekonomikorako kontseilariak Sodenari enkargatu zion harreman horiek hasteko lana.

Gaur den egunean, hasierako erronda bat egin da intereseko hiru hegazkin-linea horiekin.

Air Nostrum

2016ko urriaren 3an, Garapen Ekonomikorako kontseilariak, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak eta Sodenako teknikariek bilera instituzional bat egin zuten Iruñean Air Nostrumen bi ordezkarirekin. Bilera horretan, Air Nostrumek jakinarazi zuen ibilbide horretan operatzeko interesa duela, eta kontseilariak aditzera eman zien Bartzelonako ibilbiderako interesik badagoela, baina aztertutako beste ibilbide batzuetarako baino neurri txikiagoan. Hori hala da zeren eta ibilbide horrek potentzial txikiagoa baitu iraganean baino, beste garraiobide batzuetan (trenbidea) izandako hobekuntzen ondoren eta Iberiaren konexio-zentroren estatusa galdu ondoren.

Grupo Air France KLM

2016ko abenduaren 12an, Sodenako langile teknikoek bilera bat izan zuten Parisen talde horretako ordezkariekin. Bileran parte hartu zuten Espainiarako eta Portugalerako zuzendari nagusiak, Espainiarako eta Portugalerako ibilbideen garapenerako merkataritza-arduradunak eta Europarako Negozio Gapenerako zuzendariak, bai eta ibilbideen bi analistak ere, bata KLMren izenean eta bestea Air Franceren izenean.

Bileraren helburua izan zen harremanak hastea, lurraldearen aurkezpen bat egitea eta Iruña-Paris Charles de Gaulle eta Iruña-Amsterdam ibilbideetako Nafarroak egiten duen proposamena taldearentzat izanen lituzkeen negozio-aukerak azaltzea.

Bileraren balorazioa positiboa da. Aire-operadoreko ordezkariek interesa azaldu zuten aurkeztutako analisiaren emaitzak direla eta, eta epe bat eskatu zuten balorazio bat egin eta beren analisiekin alderaketa bat egiteko. Aurrerago izandako beste kontaktu batean, urtarrilean, operadoreak berretsi du epea luzatu beharra dagoela, balorazioan aurrera egiteko. Sodenak berretsi du prest dagoela azalpen edo informazio gehiago emateko.

Lufthansa taldea

2017ko urtarrilaren 19an, Sodenako teknikariek bilera bat izan zuten Madrilen Lufthansa taldeko Espainiarako eta Portugalerako zuzendari nagusiarekin eta Espainiarako eta Portugalerako ibilbideen garapenerako merkataritza arduradunarekin.

Bileraren helburua izan zen harremanak hastea, lurraldearen aurkezpen bat egitea eta Iruña-Frankfurt linea irekitzeak aire-konpainiarentzat izanen lituzkeen negozio-aukerak azaltzea.

Bileraren balorazioa positiboa da. Lufthansako ordezkariek interesa azaldu zuten aurkeztutako analisiaren emaitzak direla eta, eta epe bat eskatu zuten balorazio bat egin eta beren analisiekin

alderaketa bat egiteko. Sodenak berretsi du prest dagoela azalpen edo informazio gehiago emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## Galdera, adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko jarduketei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-17-PES-00021), jakin nahi baitu zein diren Nafarroako Gobernuak adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitze aldera egindako ekintza zehatzak. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren informazioa: Drogamendekotasunaren Foru Plana. Osasuna Sustatzeko eta Politika guztietan Txertatzeko Atala. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Osasun Departamentua).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

# Galdera, banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzul ditzaten Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzul ditzaten Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 9-17/PES-00022 parlamentu-galdera egin du, banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzultzeko Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Lehenbizi zehaztu beharra dago Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berriki eman duen 2016ko abenduaren 21eko epaian ez duela deklaratu zoru-klausulak deusezak direnik; izan ere, Auzitegi Gorenaren 241/2013 epaia zuzenduz, atzera-eragina ezartzen du deuseztzat deklaratutako zoru-klausula baten ondorioz kobratutako zenbatekoak berreskuratzerakoan.

Auzitegi Gorenaren epai horrek hiru finantza-entitateren zoru-klausuletan zuen eragina, eta lehenengo eta behin jotzen du zoru-klausulak ez direla legez kanpokoak izanen baldin eta epaian bertan finkatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Epaiak deuseztzat deklaratzen ditu hiru finantza-entitate horien klausulak, eta kobratutako zenbatekoak itzultzearen eraginak epaitik aurrerakoa baizik ez zen. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak egin duena izan da, jada aipatu den bezala, eragin hori zuzentzea, atzera-eragingarritasuna ezarriz. Horrenbestez, bere zoru-klausula deuseztzat deklaratua duen herritarrak hipoteka-mailegua izenpetu zuen lehenengo egunetik kobratu dizkioten zenbatekoak erreklamatu ahalko ditu.

Berriki, urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Lege Dekretua onetsi da, zoru-klausulen arloan kontsumitzaileak babesteko presako neurriei buruzkoa. Errege Lege Dekretu horrek mekanismo bat ezartzen du herritarrak saia daitezen kobratutako zenbatekoak berreskuratzen, printzipioz epaitegietara jo behar izan gabe.

Lehenengo, herritarrek finantza-entitateetara jo behar dute eta haietan bidezko erreklamazioa aurkeztu, eta finantza-entitateak hiru hilabete izanen ditu haiei konponbide bat eskaintzeko. Konponbide hori izan daiteke zenbatekoak itzultzea adosten duten bidearen arabera, edo klausularen deuseztasuna ez aitortzea eta, horrenbestez, herritarrak bide judizialera ezinbestez jo behar izatea.

Nafarroako Gobernuko Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak, Auzitegi Gorenak 2013ko epaia eman zuenetik, herritarren kontsultak artatu ditu, beren hipoteka-kontratuan jasotako klausulen balizko deuseztasuna dela eta.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berriki eman duen epaia izan da herritar asko aholku bila joatea, kasu askotan jakin gabe beren kontratuetan halako klausularik ba ote zegoen. Kontsumo Zerbitzuan arreta presentzialeko linea bat ezarri da urtarrilaren erdialdetik aurrera, herritarrak artatzeko. Gaur egun, bi teknikari daude aholkua ematen duten herritarrei laguntza ematen. Une honetara arte, 79 herritar artatu dira bertatik bertara, eta otsailaren 20ra arte 49 hitzordu jarrita daude.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren webgunean, Kontsumoaren atalean, gidaliburu bat jarri da, herritarrek jakin dezaten zer egin beren hipoteketan zoru-klausularik badute.

Ondorioa da gobernuak neurriak ezarri dituela herritarren informazio- eta aholku-beharrei erantzuteko. Halaber, aditzera eman behar da Errege Lege Dekretuak mekanismo estrajudizial bat ezartzen duela, finantza-entitatearen eta bezeroaren arteko harremanean oinarritua, administrazioen bitartekotza-mekanismoetara jo gabe.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

# Galdera, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 17an egin zen VI. Lehendakari Konferentzia dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 17an egin zen VI. Lehendakari Konferentzia dela-eta egiten duen balorazioari_ buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzutek galdera egin du, jaki nahi baitu “Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen iragan urtarrilaren 17an, asteartez, egin zen VI. Lehendakari Konferentziari buruz, zehaztuz konferentzian jorratutako gaiak eta mantendutako jarrerak”. Honako hau da Nafarroako Gobernuko lehendakariak ematen dion informazioa:

Urtarrilaren 17an, Madrilen, VI. Lehendakari Konferentzia egin zen, eta hartara joan nintzen Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari gisa. Konferentzian hamaika akordio izenpetu ziren. Gai-zerrendan aipatzen diren hamarrak dira gehi beste bat, zeinean aurreikusten baita generoko indarkeriari buruzko gai bakarreko eztabaida bat egitea.

Hartara, izenpetutako akordioak honako gai hauei buruzkoak izan ziren: enplegu-politikak; lankidetzaren printzipioa garatzea babes zibilaren arloan administrazioek beren eskumenak baliatzeko garaian; erronka demografikoa; hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politikoa; merkatu-batasuna, administrazio digitala eta enplegu publikoa bermatzeari buruzko legearen garapena eta aplikazioa; txartel soziala bultzatzea; energia elektrikoaren kontsumitzaile zaurgarria babesteko mekanismoak; ongizate-estatuaren jasangarritasuna eta finantzaketa autonomikoaren erreforma; autonomia erkidegoek Europar Batasunaren gaietan duten parte-hartzea garatzea; Lehendakari Konferentziaren beraren erregelamendua aldatzea, eta, azkenik, generoko indarkeriaren aurkako itunari dagokion gaia. Hartutako erabakien eduki osoa erantsi diot erantzun honi.

Nabarmendu beharra dago finantzaketa autonomikoaren erreforma izan zela gai-zerrendako gai garrantzitsuenetako bat, baina gai horretan Nafarroak ez zuela parte hartu, sistema berekia baitu, Estatuarekiko aldebiko negoziazioarena: Hitzarmen Ekonomikoa. Hala eta guztiz ere, nire hitzaldian aukera izan nuen gainerako autonomia erkidegoekin batera gogoeta bat partekatzeko, alegia, eredua aldatzeko beharraz haratago, dirubilketaren arazoari ekin behar zaiola funtsezkoak diren arlo batzuetako gastuei aurre egin ahal izateko; besteak beste, mendekotasunaren, osasunaren edo hezkuntzaren gastuei. Aditzera eman nuen ezen erkidegoek ongizate-estatuaren aldeko apustua egiten badugu, jabetu beharra daukagula beharren araberako diru-bilketa egokia behar dugula.

Nafarroak ez zuen parte hartu, ezta ere, merkatu-batasuna, administrazio digitala eta enplegu publikoa bermatzeari buruzko legearen garapenari eta aplikazioari buruzko akordioan, zeren eta hartan jasota baitzegoen funtzionarioak batetik bestera joateari buruzko kapitulu bat, zeinak, gure ustez, gure eskumenak ukitzen baititu.

Halaber, nabarmendu beharra dago Nafarroak egindako ekarpenetatik bi behin betiko testuan jaso zirela. Zehazki, hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politikoari buruzkoan, Nafarroak eskatuta jasota geratu zen autonomia erkidegoek zeregin aktiboa eduki behar dutela egoerari buruzko diagnostikoan. Bigarren ekarpena Europan errefuxiatuen krisiari aurre egiteko laguntza-plan bat abian jartzeari buruzkoa izan zen, eta autonomia erkidegoek Europar Batasunaren gaietan duten parte-hartzeari buruzko akordioaren testuan jaso zen.

Azkenik, Lehendakari Konferentzian bertan defendatu nuen bezala, uste dut konferentzia egitea baliagarria dela, zeren eta topagune bat baita non ekintza politikoaren arduren errealitatea osatzen duten urgentziazko gaiei buruz eztabaida baitaiteke autonomia erkidegoen ikuspuntutik. Eta esparru horretan erreklamatu nuen, halaber, ezinbestez erreparatu behar zaiola erkidego bakoitzean garrantzitsua den eztabaidari. Horri dagokionez, nire hitzaldian aldarrikatu nuen Nafarroan,

zenbait bosturteko iragan ondoren ere, Foruaren Hobetzea bete gabe jarraitzen dela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2017ko otsailaren 14an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Uxue Barkos Berruezo

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950